

**GAZTERIA:** IRAKASKUNTZA ERTAINETAKO  
IKASTETXEETAKO GAZTE INFORMATZAILEEI  
LAGUNTZEA

---

Gazteria Zerbitzua





## GAZTE INFORMATZAILEEN SAREA 2024-2025 PROGRAMAREN BARRUAN DIRU-HORNIDURAK ESLEITZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

Oinarri hauek Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean ezarritakoaren arabera arautzen dira. Ordenantza hori Vitoria-Gasteizko Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen 2023ko apirilaren 21eko ohiko bilkuran. Ordenantza uztailearen 28ko ALHAOn argitaratu zen, 88. zenbakian, eta urriaren 1ean jarri zen indarrean. [www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones](http://www.vitoria-gasteiz.org/subvenciones) orrian eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daiteke.

Deialdi honetara aurkeztu nahi duten erakundeek Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrera jo beharko dute honako hauek ezagutzeko: erakunde eskatzaileen betekizunak eta betebeharrak, dirulaguntzak justifikatzeko modua, inprimakiak (eranskinak), dirulaguntzaren publizitatea, azpikontratazioa, diruz lagun daitezkeen gastuak, beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna, arau-hausteak eta zehapenak, itzulketak, etab.

### 1. DIRULAGUNTZAREN ILDOA

Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetako gazte informatzaileei laguntzea.

Udalak, 2022-2024 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren baitan —2022ko urtarrilaren 21ean onartua—, "*Gazteek hirian parte hartzea sustatzen duten ekimenei eta proiektuei laguntzea*" izeneko dirulaguntza ildo txertatu du. Horren helburu estrategikoa honako hau da: batez ere gazteei zuzendutako proiektu asoziatiboak eta interesoziatiboak sustatzea, gazteek udal-politiketan parte har dezaten.

### 2. DEIALDIAREN XEDEA

Gasteizko ikastetxeetan —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako nahiz Goi Mailako Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeetan—, 2024-2025 ikasturtean, gazte informatzaileen sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru-hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honen bitartez.

Gazteei beren garapen pertsonalerako informazio esanguratsua eskuratzeko erraztasunak ematea da deialdi honen helburua, eta, funtsean, informazio hori bildu, antolatu eta gazteen artean zabaltzeko orduan berak protagonista izatea.

Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak gazteen arloan jarduteko ardatz nagusiak ezarri ditu (berrikuntza, protagonismoa, partaidetza eta zeharkakotasuna). Gazte informatzaileen sarearen programa honek gazteen protagonismoa eta partaidetza ahalbidetzen ditu hartzaile diren politiketan.

### 3. PROIEKTUAREN AZALPENA

**Gazte informatzaileen sarea zer den:** Ikasle gazteen parte-hartzea koordinatzen duen programa da, eguneroko eta etorkizuneko jarduerarako informazio garrantzitsuenaren erakartze-, antolatze- eta hedatze-prozesuan, honako gai hauetan, besteak beste: hiriko gazteentzako zerbitzuak eta baliabideak, prestakuntza, bekak eta dirulaguntzak, lehiaketa-deialdiak, enplegua, astialdia, etab.



**Gazte informatzaileak** Gasteizko irakaskuntza ertaineko ikastetxeetako 15 eta 25 urte bitarteko ikasleak dira. Ikastetxe bakoitzean bi ikasle izan daiteke zeregin horietan jarduteko kopururik egokiena.

Informatzaileek bi lan-ildoren bidez egiten dute lan:

1.- Ikastetxean **informazio-taula** bat kudeatzea: programarako bakarrik den taula bat, Gazteria Zerbitzuak emana, non informatzaileek gazteen intereseko gaiei buruzko kartelak eta liburuxkak partekatzen dituzten. Gazte Informaziorako Udal Bulegoak paperezko material eguneratuaren aukeraketa bat ematen die bi astean behin, eta, gainera, beraiek beren zentro, auzo edo bestelako iturri interesgarrietatik bildutako informazioa jar dezakete.

2.- Sare sozialetarako **bideo-edukia** sortzea: informatzaileak elkarlanean aritzen dira Gazteria Zerbitzuarekin, gazteentzako Gasteizko jardueri edo informazio interesgarriari buruzko informazio-materiala sortuz bideo labor formatuan. Hilean bi bideo sortzeko konpromisoa hartzen dute. Bideo horien gaia eta iraupena Gazte Informaziorako Udal Bulegoko programaren arduradunarekin koordinatuko dira. Bideoak Udaleko Gazteriaren sare sozialetara igoko dira, eta informatzaileak protagonista bihurtuko dira, bai informazioaren lanketan, bai hedapenean, informazioa berdinegan iristea erraztuz.

**Hautatzeko modua:** Ikastetxeak berak hautatuko ditu parte hartzen duten gazteak, eta nahi dituen irizpideak ezarri ahal izango ditu, betiere kontuan hartuta informatzaileek telefono mugikorra izan behar dutela eta sare sozialak erabiltzen esperientzia ertaina izan behar dutela.

Proposatutako ikasleek idatziz erantzun beharko diete IV. eranskinetako galderei, eta aurkezpen-bideo bat grabatu beharko dute banaka, 1 eta 3 minutu artekoa. Bideo horretan izena eta zer ikasten ari den esango du, eta zaletasunak eta programan parte hartzeko motibazioa azalduko ditu.

Gazteria Zerbitzuak proposamenak baloratuko ditu, oinarri hauetako hamaikagarren puntuan ezarritako baremoan oinarrituta, eta, horrela, parte hartuko duten ikastetxeak hautatuko ditu.

Gazte informatzaileek ordain ekonomiko bat jasoko dute beren lanagatik. Ordain hori ikastetxearen bidez helaraziko zaie, eta ez da inolako lan-harremanik edo merkataritza-harremanik ezarriko Udalarekin.

2024ko urritik 2025eko maiatzera artekoa izango da **funtzionamendu-aldia**.

**Diru-hornidurak:** deialdi honen bidez, gehienez ere 22 diru-hornidura esleituko dira. Diru-hornidura bakoitza 500 eurokoa izango da ikastetxe bakoitzeko, informazio-taula dinamizatzeagatik eta Gazteria Zerbitzuko sare sozialetarako hilean 2 bideo labor sortzeagatik ikasleei emango zaien kontraprestazio gisa.

Zenbatekoa bi epetan sartuko da ikastetxeko banku-kontuan, eta hura arduratuko da ikasleei ordaintzeaz.

Gazteria Zerbitzuak ordainketak izapidetu ditzan, beharrezkoa izango da ikastetxeak abenduaren hasieran eta maiatzaren hasieran frogagiri bat bidaltzea, informatzaileek ikastetxean informazioa dinamizatzeke lana egin dutela berresteko.

Ikastetxeak ezingo du inolaz ere atxiki diru-hornidura Gazte informatzaileen sarearen programaz kanpoko kontzeptuak direla eta.



#### 4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

---

Deialdi honen haritik ematen diren laguntzak Gazteria Zerbitzuaren 2024ko aurrekontuko 2023/0116/2371.48936 partidako 11.000 euroko aurrekontu-kreditutik ordainduko dira.

#### 5. IKASTETXEAREN ZEREGINAK, GAZTE INFORMATZAILEEN SAREA DELA ETA

---

Programan parte hartu nahi duten ikastetxeei hauxe eskatzen zaie:

- a. Gazte Informatzaileen Sarea programa ikasleen artean zabaltzea, eta parte hartzen duten ikasleak hautatzea.
- b. Ikastetxean erreferentziako pertsona bat hautatzea, bai informatzaile jarduten duten gazteentzat, bai Gazteria Zerbitzuarentzat.
- c. Proiektuaren jarraipen eta ebaluazio prozesuan Gazteria Zerbitzua laguntzea.
- d. Ikastetxean izendatutako arduradunak, gazte informatzaileekin eta gazteriako teknikariarekin batera, jarraipen bilera batean parte hartuko du, otsailean eta martxoan zehar.
- e. Ikastetxean ikusteko moduko leku bat lagatzea informazio-taula jartzeko. Taula hori informatzaile gazteek baino ez dute erabiliko.
- f. Programaren zabalkundea erraztea, bai ikastetxean bertan, bai ikastetxearen sare sozialen, webgunearen edo argitalpenen bidez.
- g. Zentroko baliabideak erabiltzen uztea, informazio-taula kudeatzeko lanak errazteko: bulegoko materiala, fotokopiagailua, ordenagailua, etab.
- h. Diru-horniduraren hartzaile eta igorle gisa jardutea, ikastetxeko gazte informatzaileei helaraziz, bai eta transakzio horiek behar bezala justifikatzea ere.
- i. Proiektuak ezarritako aldi osoan jarraituko duela ziurtatzea, informatzaile berriak izendatuz, hala behar izanez gero, informatzaileek ikastetxean baja emateagatik, hurrengo puntuan adostutako eginkizunak ez betetzeagatik edo ezinbesteko beste arrazoi batzuegatik.

#### 6. GAZTE INFORMATZAILEEN ZEREGINAK

---

Deialdi honetan beren proposamena hautatua egokitzen delarik, zeregin hauek hartu beharko dituzte beren gain gazte informatzaileek:

- a. Gazte Informaziorako Udal Bulegotik pasatzea (Espainia plaza 1, behea) 15 egunetik behin edo programak adierazitako egunetan; prestatu zaien informazioa biltzea; eta ikastetxeko kideentzat interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio hautatzea eta prestatzea.
- b. Ikastetxeko informazio-taula kudeatzea, eta behar bezala ordenatuta eta eguneratuta edukitzea. Horretarako, Gazte Bulegoan jasotako informazioa eta beste bitarteko batzuen bidez lortutakoa jarriko dute, gaika antolatze eskema bat mantenduz.
- c. Programa zabaltzea (klaseetatik igaroz, ordezkarien bidez, etab.), informatzaile bezala aurkeztuz, informazio-taula dagoela gogoratuz eta Gazteriaren sare sozialak zabalduz.
- d. Ikaskideei informazioa emateko lan zuzena egitea, helarazten dizkieten zalantzak argituz, edo bitartekari lana egin, zalantzak argitu ditzaten.



- e. Gazteen intereseko ekitaldi, jarduera edo informazio orokorrari buruzko edukia sortzea, bideo formatuan, hilean bitan. Bideoen edukia eta iraupena Gazte Informaziorako Udal Bulegoko programaren arduradunarekin adostu eta koordinatuko dira. Bideo bakoitza euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, bereizita edo grabazio berean konbinatuta, eta, gutxienez, sortzen dituzten 2 bideotatik batean, ikastetxeko bi informatzaileetako bat agertu beharko da.
- f. Hasierako bi prestakuntzetara joatea: bata, programaren funtzionamenduari buruzkoa, eta bestea, sare sozialetarako bideo-edukia sortzeari buruzkoa. Prestakuntza horiek urrian izango dira
- g. Gazte Bulegotik otsailean eta maiatzean proposatzen diren koordinazio eta jarraipen bileretara joatea.
- h. Programaren jarraipen eta ebaluazio datuak biltzen laguntzea eta egindako lanari buruzko azken galdetegi bat betetzea. Galdetegi hau ezinbestekoa izango da diru-horniduraren bigarren epea kobratzeko.

## 7. GAZTERIA ZERBITZUAREN ZEREGINAK

---

Konpromiso hauek hartuko ditu bere gain Gazteria Zerbitzuak:

- a. Ikastetxeari eta informatzaileei dagokienez, proiektuaren arduradun bat izendatzea.
- b. Zentro bakoitzari informazio-panel bat ematea, beharrezkoa bada.
- c. Gazte informatzaileei informazio-taula (edo informazio-taulak, bi ba daude) eguneratzeko beharrezko materiala ematea, bi astean behin, gutxi gorabehera.
- d. Informatzaileei hasierako prestakuntza ematea, programaren funtzionamenduari, informazioaren hautaketari eta antolaketari eta sare sozialetarako bideoak sortzeari begira.
- e. Gazte informatzaileei informazio-panela kudeatzeko aholkuak ematea, eta jarraipen pertsonalizatua egitea whatsapp-aren bidez.
- f. Gazte informatzaileei bideo-edukia sortzeko gaiari eta iraupenari buruzko aholkuak ematea, eta alderdi teknikoetan laguntzea ere, sare sozialetara igo aurretik ahalik eta bertsiorik onena lortzeko.
- g. Informatzaileek sortutako bideoak Gazteria Zerbitzuko sare sozialetara igotzea, behar besteko kalitatea badute.
- h. Beharrezko bilerak egitea, eta programak behar bezala funtziona dezan, kasu bakoitzean kontrol eta ebaluazio sistema egokienak ezartzea.
- i. Datuak biltzeko eta proiektua ebaluatzeko tresnak ematea.
- j. Ikastetxeei esleituriko diru-horniduren ordainketak egitea, deialdi honetan deskribatutako denbora eta moduetan.
- k. Gazte informatzaileek programa honen inguruan sortutako proposamenak, ekintzak eta albisteak babestea.

## 8. PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

---

1.- Gazte informatzaileen sarean parte hartu nahi duten **Gasteizko udalerriko ikastetxeek** (Bigarren Hezkuntza, Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketa), baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. 5. atalean adierazitako konpromisoak beren gain hartzeko prest agertzea.



- b. Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria (I. eranskina) eta Gazte informatzaileen sarea programan parte hartzeko eskabidea (II. Eranskina) aurkeztea.
- c. Ikasleen dokumentazio hau jasotzea: Ikasleen eskabidea Gazte Informatzaileen Sareko informatzailea izateko (III. eranskina), galderen idatzizko erantzunak (IV. eranskina) eta Gazte Informatzaileen Sarea programan parte hartzeko eta sare sozialetan irudia erabiltzeko baimena (V. eranskina).
- d. Dokumentazioa deialdi honen 10. puntuan deskribatutako epeetan eta moduan aurkeztea.

2.- Deialdi honetan **parte hartu nahi duten ikasleek** baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a. 6. atalean zehaztu diren informatzaile-zereginak beren gain hartzea.
- b. Proiektua aurkezten den ikastetxean matrikulatuta egotea. Ikasturtean zehar praktikak ikastetxetik kanpo egin behar badira, ikasleak hitzemandako zereginak betetzen dituela bermatu behar du. Ikasturteko edozein unetan ikastetxean baja emanez gero, gazte informatzaile izaera galduko da, baita baja ematen den unean jasotzeke dagoen diru-hornidura ekonomikoa ere.
- c. 15 urtetik 25era bitarteko adina edukitzea. Ikasturtean zehar bete beharko da baldintza hori. Gainera, DBHko 4. maila, Batxilergoa edo Lanbide Heziketako zikloren bat egiten aritu beharko da.
- d. Informatzaile-lana egiteko prestazio nahikoak dituen telefono mugikor bat izatea, eta gizarte-sareak erabiltzen esperientzia ertaina edo ertaina/handia izatea.
- e. Zentroko arduradunari honako dokumentazio hau ematea:
  - Informatzaile bezala parte hartzeko eskaera (III. eranskina).
  - IV. eranskineko galderei idatzizko erantzunak.
  - Programan parte hartzeko eta sare sozialetan irudia erabiltzeko baimena (V. eranskina).
- f. Informatzaile bakoitzaren aurkezpen-bideoa banaka grabatzea eta IV. eranskinean adierazten den bezala bidaltzea.
- g. Ikasle bakoitzak gehienez bi ikasturtez parte hartu ahal izango du programan, matrikulatuta dagoen ikastetxea edozein dela ere.

Gazte Informaziorako Udal Bulegoak programaren edozein zalantza argitu behar duten ikasleei edo eskatutako eranskinak betetzeko laguntza behar dutenei laguntza emango die 945161330 telefonoan, 626744936 whatsapp-ean edo posta elektronikoen bidez: [infojovent2@vitoria-gasteiz.org](mailto:infojovent2@vitoria-gasteiz.org).



## 9. LEHIATZEKO DEBEKUA

---

Honako zirkunstantzia hauetan dauden pertsona edo erakunde hauek ezin izango dute parte hartu:

- Berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko eta/edo generoagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-, lan- edo zigor-bidean zehapen irmoa jaso izana.
- Xedeak edo helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolaketa edo estatutuak genero-berdintasunaren printzipioaren aurkakoak izatea.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
- Sexuagatik eta/edo generoagatik diskriminatzen duten jarduerak sustatzea.

## 10. IRAGARKIA ETA AURKEZTEKO EPEA

---

### 1.- Informazioa eta dokumentazioa

Deialdia ALHAOn, Udalaren webgunean ([v-g.eus/omij/GIS](http://v-g.eus/omij/GIS)) eta @vggaztea Instagram-eko profilean argitaratuko da, eta Gazte Informaziorako Udal Bulegoan (Espainia plaza) eskatu ahal izango da oinarrien kopia.

### 2.- Tramitazioa

Eskabideak aurrez aurre aurkeztu ahalko dira, herritarrei laguntzeko bulegoetan, edo Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa, helbide honetan: <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>; orobat aurkeztu ahalko dira legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

**Proposamenak aurkezteko epea: 2024ko urriaren 2ko 23:59 arte.**

Eskabide bakoitzari erantsita, oinarri hauetan eskatutako dokumentuak aurkeztu beharko dira:

- **I. Eranskina:** Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
- **II. Eranskina:** "Gazte Informatzaileen Sarea" programan parte hartzeko eskabidea.
- **III. Eranskina:** Ikasleen eskabidea, Gazte Informatzaileen Sareko informatzailea izateko.
- **IV. Eranskina:** Gazte Informatzaile izan nahi duten ikasleen proposamena.
- **V. Eranskina:** "Gazte Informatzaileen Sarea" programan parte hartzeko eta sare sozialetan irudia erabiltzeko baimena.

Dirulaguntzaren eskaera behar bezala formalizatu ez bada, daturen bat falta bada edo eskatutako dokumenturen bat aurkezten ez bada, ikastetxe eskatzaileari eskatuko zaio akatsa zuzentzeko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidea artxibatu egingo dela, beste izapiderik egin gabe.



Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duten edo eskatutako akatsak 10 egun balioduneko gehieneko epe luzaezinean zuzentzen ez dituzten ikastetxeei eskaeran atzera egin dutela ulertuko da.

## 11. EMATEKO PROZEDURA ETA BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

Emakida-prozedura norgehiagokakoa izango da; aurkeztutako eskabideak alderatu egingo dira, lehentasun-hurrenkera ezartzeko, jarraian adierazitako balorazio-irizpideen arabera. Dirulaguntza balorazio handiena lortu dutenei esleituko zaie, deialdiko aurrekontu-kreditua agortu arte.

Gazte Informatzaileentzako hautagaiak idatziz erantzun beharko diete IV. eranskinen jasotako galderari, eta eranskin berean azaltzen den aurkezpen-bideoa grabatu beharko dute.

Gazteria Zerbitzuak proposamenen balorazioa egingo du, irizpide hauen arabera:

<b>Idatzizko erantzunen balorazioa</b>	
Gazte informazioari buruzko hausnarketa	10 puntu gehienez
Informatzaile jarduteko plana	10 puntu gehienez
Gazteriaren sare sozialei buruzko hausnarketa	10 puntu gehienez
Sare sozialetan emakumeek duten rolari buruzko hausnarketa	2 puntu gehienez
<b>Hautagai bakoitzaren bideo-aurkezpenaren balorazioa</b>	
Bideoaren kalitate teknikoa	10 puntu gehienez
Edukiaren kalitatea (ordena, egitura)	10 puntu gehienez
Adierazkortasuna, naturaltasuna, hurbiltasuna	10 puntu gehienez
Hizkuntzaren erabilera ez-sexista aurkezpen-bideoan	2 puntu gehienez
<b>Informatzaileen merezimenduak</b>	
Gazteen elkarte edo kolektibo bateko kide izatea (egiaztagiriarekin)	2 puntu gehienez
Aisialdiarekin, animazioarekin edo gazte-informazioarekin lotutako ikastaroak egin izana (egiaztagiriarekin)	2 puntu gehienez
Ordezkaritza-organoetako kide izatea (eskola-kontseilua, lan-batzordeak) (egiaztagiriarekin)	2 puntu gehienez
<b>GUZTIRA</b>	<b>70 Puntu</b>

Hornidura ekonomikoak baino eskaera gehiago egonez gero, 22 ikastetxeak aukeratuko dira, lehen adierazitako irizpideen arabera, puntuazio handienetik txikienera. Gainerako eskabideak itxaron-zerrenda batean sartuko lirateke (lortutako puntuen arabera ordenatuta), eta horretara joko litzateke, baldin eta aurrekonturik badago edo ikastetxeren batek uko egiten badio.





## 12. BALORATU, IZAPIDETU ETA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNAK

---

Eskabideak baloratzeko eta laguntzak proposatzeko eskumena duen kide anitzeko organoa Gazteria Zerbitzuko talde teknikoko hiru pertsonak osatuko dute. Hauek dira hiru pertsona horiek: Oskar Fernández Jaras, Estíbaliz Sanz eta Izaskun Laorden. Instrukzio-organoa Gazteria Zerbitzua izango da, eta ofizioz egingo ditu beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak, ebazpen-proposamena egiteko oinarri izango diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko. Organo horrek dirulaguntza emateko proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari. Dirulaguntzak ematea ebazteko organo eskuduna Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra izango da.

## 13. ESLEIPENAREN BERRI EMATEA ETA ORDAINTZEKO MODUA

---

Diru-horniduraren adjudikazioaren jakinarazpena idatziz helaraziko zaio ikastetxeari, 10 eguneko epean, Gobernu Batzarrak onesten duenetik

Ikastetxe esleipendunen kontu korranteetarako diru-hornidura ekonomikoak bi epetan sartuko dira. Lehenengoa, ikasturteko lehenengo lauhilekoaren bukaeran, eta bigarrena, 2025eko maiatzetik aurrera.

Diru-hornidura ekonomikoak jaso ahal izateko, ikastetxeek egunean izan beharko dituzte Vitoria-Gasteizko Udal honekiko zerga-betebeharrak (egiaztapen hori ofizioz egingo du Gazteria Zerbitzuak, baldin eta "Gasteizko Udalari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria" inprimakian -I. eranskina- baimena eman bada).

Baimen horiek UKATUZ gero, 2024ko irailean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Bigarren ordainketa jasotzeko, gazte informatzaileek ebaluazio-inprimakia bete beharko dute, horretarako zehaztuko den eguna baino lehen. Horretarako, Gazteria Zerbitzuaren eta ikastetxearen oniritzia beharko dute.

Informatzaile gazteek beren eginkizunak behar bezala betetzen ez badituzte, eta ikastetxeari eta interesdunei behar bezala jakinarazi ondoren, dagokion diru-horniduraren ordainketa eten egingo da. Ordainketa egin bada, ikastetxeak dotazio ekonomikoa itzuliko dio Udalari.

## 14. DIRU-HORNIDURA JUSTIFIKATZEA

---

Gazte Informatzaileen Sarea dinamizatzeko diru-hornidura ekonomiko baten onuradun den ikastetxeak agiri bat bidali beharko du sinatuta, Gazteria Zerbitzuak emango diona, eta egiaztatu beharko du informatzaileek behar bezala egin dutela ikastetxean informazio-panela eguneratzeko lana. Dokumentu hori urtarrilaren 31 baino lehen bidaliko da lehen ordainketarako, eta ekainaren 30a baino lehen bigarrenerako.